AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1147

AGINDUA, 2015eko otsailaren 25ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, M.ª Encarnación Echazarra Huguet andrea Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzako Administrazio Orokorraren Kudeaketaren arduradun kargutik kentzeko dena (kodea: 510404; dotazioa: 1).

Euskal Funtzioa Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta lege horrek ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– M.ª Encarnación Echazarra Huguet andrea Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzako Administrazio Orokorraren Kudeaketaren arduradun kargutik kentzea (kodea: 510404; dotazioa: 1; lanpostu-mailako osagarria: 27; berariazko osagarria: II-B), Administrazio honetan beste lanpostu bat beteko baitu, eta egindako lanarengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-kentze honek 2015eko martxoaren 2tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 25a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.